

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

3758

EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 18koa, Hezkuntza Saileko Langileriaren kudeaketa zuzendariarena, zeinaren bidez, baietsitako errekurtsua betez, 2025eko maiatzaren 19ko Ebazpena aldatzen baita. Ebazpen horren bidez, argitara eman zen Hezkuntza Saileko lan-kontratudun hezkuntza-langileen kategorietako plazak modu finkoan betetzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien zerrenda. Prozesu horretarako deialdia Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez egin zen.

2024ko abenduaren 26ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 17. zk., 2025eko urtarrilaren 27koa), argitara eman ziren enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen behin betiko zerrendak, Hezkuntza Saileko lan-kontratudun hezkuntza-langileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko, bai eta hautatutako izangai ordezkoen zerrenda ere, hautatutako izangairen batek izaera hori galduko balu ere.

Ebazpen horren arabera, Mari Mar Redondo Redondo ez da hautatua izan, nahiz eta txanda orokorrean ordezeko gisa hautatutako izangaien zerrendan lehenengoa agertzen den, 78.964 puntu baititu euskaradunen puntuazioaren araberrako zerrendan, hau da, euskararen ezagutza merezimendutzat jo den puntuazioaren arabera.

Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2025eko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez, argitara eman zen, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuko lan-kontratuak formalizatu behar zituzten pertsonen zerrenda, eskatutako dokumentazioa ezarritako epearen barruan aurkezteagatik, bai eta ordezkoen zerrendan agertzen den puntuazio-ordenaren arabera hautatutako pertsonen zerrenda osagarria ere (hasieran izendatutako pertsonen uko egin edo baldintzak ez betetzearen ondoriozkoak). Pertsona horiek hautatuak izan ziren enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan, Hezkuntza Saileko lan-kontratudun langileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko, esleitutako lanpostua adierazita.

Mari Mar Redondo Redondo andreak aipatutako salbuespenezko prozesuan parte hartu zuen, zehazki txanda orokorrean aukeratzeko lan-kontratuko hezkuntza-langileen lan-kategoriakoa den lanpostu bat lortzeko, eta ez zen hautatua izan, txanda orokorreko ordezkoen zerrendan lehen postuan egon arren. Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2025eko maiatzaren 19ko Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen, hautatua izateko eta 3470-894 lanpostua esleidi dakion eskatzeko. Errekurtsu hori onetsi egin zen, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2025eko abuztuaren 1eko Ebazpenaren bidez, zeinak agindu baitzuen prozedura errekurritutako ebazpena eman baino lehenagora atzera eraman, eta hutsik dauden plazak behar bezala esleitzeko.

Beste alde batetik, eta gora jotzeko errekurtsuaren ondoren plaza hutsen esleipen berri hori egiteko beharraren ondorioz, Iratxe Goitia Martínez andrearen kasuan akats bat antzeman da euskara eskakizuna duten plazen esleipenean, ez baitzen inongo plazaren esleipendun izan, nahiz eta txanda orokorreko ordezeko izangai hautatuen zerrendan laugarren postuan egon euskararik gabeko puntuazioaren araberrako zerrendan, hau da, euskararen ezagutza baldintzatzat hartu den puntuazioan.

Era berean, eta kontuan hartuta ordezeko izangaiak plaza hutsak esleitzeko hasierako prozesuan ez zirela sartu bi erretiroren ondorioz hutsik geratuko ziren bi plaza (3470-253 eta 3470-667, hurre-

nez hurren, euskara eskakizuna duten plazen txanda orokorreko esleipendunena), beharrezkoa da esleitu beharreko plaza hutsen zerrendan bi plaza gehiago sartzea.

Horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.— Zioen azalpenean adierazitako ebazpena betetzeko, jarritako errekurtsua baie-tsiz, eta bertan adierazitakoa ikusita, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko maiatzaren 19ko Ebazpenaren V. eranskina aldatzea. Ebazpen horren bidez, orde-zkoen zerrendan agertzen den puntuazio-hurrenkeraren arabera hautatutako pertsonen zerrenda osagarria argitaratu zen, eta pertsona horiek hautatutzat jo ziren enplegua egonkortzeko salbues-penezko prozesuan, Hezkuntza Saileko lan-kontratudun hezkuntza-langileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko, esleitutako lanpostua adierazita.

Aipatutako V. eranskina aldatzen da, errekurtsua gauzatuz Mari Mar Redondo Redondo andrea hezkuntza-laguntzako espezialistaren kategorian, txanda orokorrean, hautatutako pertsona gisa sartzeko, eta 3470-894 plazaren (txanda orokorreko plaza) adjudikaziodun bihurtzen da.

Bigarrena.— Bestalde, eta zioen azalpenean antzemandako eta adierazitako akatsaren ondorioz, aldatu egiten da Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko maiatzaren 19ko Ebazpenaren V. eranskina. Ebazpen horren bidez, ordezkoeen zerrendan agertzen den pun-tuazio-ordenaren arabera hautatutako pertsonen zerrenda osagarria argitaratu zen, eta pertsona horiek hautatutzat jo ziren enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan, Hezkuntza Saileko lan-kontratudun langileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko, esleitutako lanpostua adierazita. Aldaketaren helburua da Iratxe Goitia Martínez andrea hezkuntza-laguntzako espezia-listaren kategorian (txanda orokorra) hautatutako pertsona gisa sartzeko eta 3470-253 plazaren esleipendun izatea.

Hirugarrena.— V. eranskina ordezte.

Aurreko apartatuetan adierazitakoaren ondorioz, eta ordezkoeen zerrendan agertzen diren hau-tagaiei plaza hutsak berriro esleitu behar zaizkienez, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2025eko maiatzaren 19ko Ebazpenaren V. eranskina ordezten da, ebazpen hone-tan agertzen dena.

Laugarrena.— Hamar egun naturaleko epea irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Mari Mar Redondo Redondo eta Iratxe Goitia Martínez hautatutako izangaiek parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak bete-tzen dituztela egiaztatzen duten dokumentuak aurkez ditzaten. Baldintza horiek Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren 2.3 oinarrian daude adierazita.

Dokumentazioa aurkeztuko da hemen: Hezigunea (<https://hezigunea.euskadi.eus>) («Era-biltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Tramitagune-Administrazio-espedienteak» – «Ireki espediente berria» – «Gainerako izapi-deak» – gaian «EPE 2022. Lan-legepeko hezitzaileak. Dokumentazioa entregatzea» adieraziz.

Ebazpen honen VI. eranskinean zinpeko adierazpenaren eredua argitaratzen da, bai eta «Hau-tatuek agiriak entregatzeko» eredua ere. Eredua hori ere bete eta adierazitako helbidean aurkeztu beharko da.

Bosgarrena.— Aipatutako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiriak aurkezten ez dituztenek, edo agiri horiek aztertuta ikusten bada deialdiaren 2. oinarrian eskatutako baldin-

tzaren bat betetzen ez dutela, edo dagozkien zereginak betetzeko eskatzen den gaitasun fisiko edo psikikoa ez dutela, ezin izango dute lan kontratuko langile finko bihurtu, eta beren jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, hargatik eragotzi gabe eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna.

Seigarrena.— Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko dute Hezkuntzako sailburuaren aurrean. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 18a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.

V. ERANSKINA

Kategoria: Hezkuntza-laguntzako espezialista.

Txanda: Orokorra.

NAN	Abizenak eta izena	Guztira	Adjudikazioa		
***7546**	Redondo Redondo, Mari Mar	78,9640	Berritzegune A02	3470 - 894	1HE G.G.
***7413**	Gordaliza Lotina, Odei	49,7110	Berritzegune B03	3470 - 227	HLEA
***9416**	De la torre Bilbao, Patricia	49,5050	Berritzegune B03	3470 - 619	HLEA
***4539**	Matute Arranz, Esther	49,4150	Berritzegune A01	3470 - 14	HLEA
***2870**	Goitia Martínez, Iratxe	49,3010	Berritzegune B04	3470 - 253	HLEA
***1428**	Martin Odriozola, Edurne	49,1750	Berritzegune A02	3470 - 608	HLEA
***5952**	Ramada García, Sergio	49,1450	Berritzegune B05	3470 - 667	HLEA
***2412**	Barinagarrementeria Urtaran, Tatiana	49,1410	Berritzegune A01	3470 - 25	HLEA
***3226**	Egaña Arambalza, Oiane	48,0300	Berritzegune A01	3470 - 15	HLEA
***7230**	Montero Pelaz, Cristina	48,9300	Berritzegune A01	3470 - 18	HLEA
***6936**	Burgoa Goikoetxea, Maria Irene	48,9200	Berritzegune A01	3470 - 21	HLEA
***6462**	Aldasoro De la Revilla, Haizea	48,9180	Berritzegune A01	3470 - 34	HLEA
***3622**	Pérez Rubio, Aitziber	48,9080	Berritzegune A01	3470 - 603	HLEA

Kategoria: Hezkuntza-laguntzako espezialista.

Txanda: Desgaitasuna.

NAN	Abizenak eta izena	Guztira	Adjudikazioa		
***2849**	Martin Bilbao, Nerea	11,0000	Berritzegune A01	3470 - 9	HLEA
***0251**	Calvente Gómez, Maria Teresa	7,2040	Berritzegune A01	3470 - 238	1HE G.G.

VI. ERANSKINA

2022ko EPE. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua (Hezkuntzako lan-legepeko langileak)

Hautatuek agiriak entregatzeko inprimakia

Abizenak:		
Izena:	NAN:	Telefona:
Kategoria:		
Hautatua izan naiz Hezkuntza sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez deitutako egonkortzeko salbuespenezko prozesuan; hori dela eta, honako agiri hauek aurkezten ditut:		
Aurkeztuko dituzun dokumentuen zerrenda		
☐ Kategorian sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.		
☐ Nortasun Agiri Nazionala edo, atzerritarra bazara, dagokion dokumentua.		
☐ Zinpeko aitorpena edo promesa		
☐ Desgaitasun txanda: organo eskudunetako ziurtagiria, izaera hori aitortzeko (33% desgaitasuna).		
☐ Epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik zigortua izan ez zarela adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egina.		
Data, tokia	Izenpetua	

Langileak kudeatzeko zuzendariarentzat. Hezkuntza Saila.

2022ko EPE. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua (Hezkuntzako lan-legepeko langileak)

Zinpeko aitortpena

Nik.....

NAN.....

ADIERAZTEN DUT, zinpean edo promespean, diziplinazko espediente baten bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, administrazio publikoei edo autonomia-erkidegoetako konstituzio-organoei nahiz estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera desgaitzeta absoluturik edo berezirik ez izatea banantzeko edo desgaitzeko subjektua izan den funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko.

.....a(n), 2025eko.....rena

Izpta.:

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek betetzeko:

Nik.....

NAN.....

ADIERAZTEN DUT, zinpean edo promespean, desgaitzeta-egoeran edo egoera baliokidean ez egotea, eta(e)an (estatuaren izena) diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik

.....a(n), 2025eko.....rena

Izpta.: